

Tobera

Berria Laguna Ziztada jaialdia

2013 – 01 – 19

Egoitz Aizpuru
Eneko Barberena
Naroa Elortza
Leire Etxeberria



Pertsonaiak:

- Abokatua: Naroa Elortza (Oñatiko Toberan Oñatiren aurkako akusazioa)
- Fiskala: Egoitz Aizpuru (Oñatiko Toberan Oñatiren defentsa)
- Akusatua: Leire Etxeberria (oñatiarra)
- Epailea: Eneko Barberena

1. zatia: sarrera

Abokatua: Zelako pasadia emun notzun aurrekuan e!

Fiskalak buruarekin baietz, burumakur

Abokatua: Superau dozu? Edo zuluhan sartuta jarraitzen dozu oindio?

Fiskala: Superau? Oindiok ez da nahiko denpora pasau e!

Abokatua: (*Publikoari*) Hauek biherbada ez daue jakingo ta, kontaukotziet! Badakitxue oin dala hiru aste epaiketa bat izan geuela Oñatin? Tobera... Bai, Debagoixenak Oñati akusau euen, eta epaiketa guk irabazi gauen. Ta beitu zela geratu dan ondoko hau epaiketia galduta.

Fiskala: Zu! Oin herrixan mobidak besterik ez dakot eh! Guardia zibilek bakarrik saludaitten naue. Jentia ez dau nitaz ezer jakin gura.

Abokatua: Hainbesterako da ala?

Fiskala: Bai bai. Alkatiak be bilera baterako deittu nau.

Abokatua: Bilera bat, baina zer gara dotzu ba esatia?

Fiskala: Ba ez dakit zer gurako dauen, baina gauza onik ez seguruenez. Ez dot uste atez atekuana defenditteko eskatuko doztanik, nere palmaresa ikusitta.

Abokatua: (*barrez*) Bai, hobe zu ez bazara oin hori defenditten hasten, ze bestela atez atekua biherrian kontenedore bakarrakin geratuko da Oñati ta! Ta oin ze jarraitu biher dozu, isolatuta, zeure baitan sartuta, oñatiarrei ohore eitten?

Fiskala: Oñatiarrak inkomunikauta? Gaur ona etorri da Oñatiko jentia e!

Abokatua: Bai, seguru Ganbara Txiki ikustera etorriko zien gurasuak diela!

Fiskala: Dana dalakua, baña etorri die! Gainera, berezitxuak izango gara baina ez zuek esaten dozuen beste. Hala be, lehen hemen behian neuen sarreran, ta hor euzen jaialdi honen bueltan lanian dabitzen boluntarixuak, boletuak saltzen, jendian ziztada bila,... ta pasau da Oñatiko neska bat. Oso jarrera oñatiarrakin pasau da, aurrera begira, aldamenetara begiratu barik. Ta nik ikusi dot zela boluntarixuek esan xauein boleto bat erosteko, edo ziztada bat itteko, ta hoixe, begiratu be in barik segiu dau aurrera. Ze errespetu faltia!!! Hori epaitu biharko geke gaur hemen, pertsona hori ta jarrera hori!!!

Abokatua: Beno, baña hori normala da. Oñatiarra izanda, behin bertatik urten ta desubikauta, galduta egongo da Arrasaten!

Fiskala: Bai zea despistauta. Oso euskalduna dala esango dau berak gainera! Baina gero lagunketako momentua allaitten danian, begiratu be ez, ta aurrera. Han bea!!!! Beitu hori da!!!

Abokatua: Hori? Ezautzen dozu ala?

Fiskala: Ezautuko ez dot ba! Etorri hona, epaiketa bat daukotzu hamen ta! Zure errespetu faltia epaitu biherra dau!

Akusatua: Nik ez dot ein ezebez!

Fiskala: Zela ez dozula ezer ein! Oin esango duztazu epaiketei bilddurra dakotzula!

Akusatua: Ez!

Fiskala: Ba orduan jeiki ta etorri faborez.

Abokatua: Baña zela hasiko gara ba epaiketa bat eitten?

Fiskala: Nik ingo dot fiskalana ta zu abokatuana itteko prest bazauz...

Abokatua: Baina zela eingo dou epaiketa bat! Epailleik eztaukou ta!

Fiskala: Zuk preparau defensia ta epailiana nik arreglaukot (*Epaille bila*) Hemen! Epaille ta erdi!!!!

Abokatua: Bai, abokatu frustrau hau ekarri biher dozu? Beno, mesedez!

2. zatia: Epaiketa

Fiskala: Epaille jauna, kasu larri baten aurrian gauzela esango neuke.

Epaillea: Ze ba?

Fiskala: Leire, oñatiarra, nik ezauketan dot, Amaia Antzoki paretik pasa da, ta jaialdiko boluntarixuek boletuak erosteko edo zitzada bidez berriai lagunketako aukera eman dotzenian, beitu be ein barik aurrera jarraitu ein dau, ez balegoz moduan ein dau.

Epaillea: Honek merezi dau epaiketa bat. Euskal Herrixan motibo txikinauatik epaitu izan da jentia. Fiskal jauna, zuria da hitza.

Fiskala: Leire, zuzen-zuzenian eingotzut galderia. Amaia Antzoki aurretik pasa zarenian ta boluntarixuek aukera eman dotzuenian laguntza emateko, ikusi dittuzu? Entzun dittuzu?

Akusatua: Bai, ikusi ttut. Baina ez da nehikua urtero-urtero Durangon Berriako egutegixa erostiakin? Urte baten, azaroari egun bat gehixau jarri otsain. Eta hola be erosi itten dot!

Abokatua: Gainera, seguro nau egunero irakurten dozula, ezta?

Akusatua: Bai, Interneten!

Fiskala: Ja! Interneten! Hori samurra da! Baina paperezko edizina erosteko momentuan?

Akusatua: Papera, papera... Ni ekologistia naiz, ez dot papelik erabilten!

Fiskala: Papelik ez dozula erabilten? Ez dot gure imaginetia kumunian zela arregletan zaien!

Abokatua: Beno beno, hasi zara?

Epalea: Zaindu formak mesedez.

Fiskala: Beno, bale, barkatu. Baina paperezko edizina erostiaz aparte, badauz lagunketako beste era batzuk: Berriako lagun indd, adibidez.

Akusatua: Krisi honekin, ez da samurra... Nik erabakiko dot ba, nere diruakin zer itten doten!

Abokatua: Hori da, gainera, kausarako dirua emuten dozula.

Fiskala: Zer da kausa baina?

Abokatua: Herrigintza, euskalgintza, kulturgintza, kooperatibagintza... Gintzakin bukatzen dien hoiak danak die kausa!

Akusatua: Ez dot emungo ba. Urte osuan: Santa Agedan eskian etorten dia, gero Korrikan alde, Maritxutako eskapularixua, Kilometrotako kotxe rifak, Santamasetakuak... Eta Gabonetan, zer ez! Aloña Mendi kirol elkarteko loterixia....

Abokatua: Baina ze sailetakua baina?

Akusatua: Danak! Mendixa, igeriketa, saskibaloia, eskubaloia, karate, pin pon...

Abokatua: Pin pon daukotzue Oñatin? Beno beno! Eta seguro Ganbara Txikiko rifak be erosiko dittuzula!

Akusatua: Ba klaro!

Abokatua: Dirua, dirua, dirua... Baina euskarak lan handixa eskatzen dau, ez dirua bakarrik. Seguru euskararen alde lan itten dozula baita, ezta?

Akusatua: Bai! Mintzalaguna naiz Zaharberrin.

Fiskala: Ja Mintzalaguna! Mintzalagunan ligaitteko apuntatzen zai!!!

Abokatua: Han bestia! Zu ligetako apuntau zinelako, bestioi ez leporatu iguela!

Fiskala: Beno beno, Mintzalagunan disfruterako apuntetan zai! Ondo pasaitteko!! Hori ez da inungo sakrifiziua!

Akusatua: Sakrifiziua? Badakitzu zenbat Ginkas txar hartu doten ikastolen alde Kilometrotan?

Abokatua: Bai, gainera izotz barik ematen dotzue, lokatz artian, txepel-txepel...

Akusatua: Eta urtero-urtero Santamasetan AED-ko talo postuan ordu eta erdi egoten naiz zain, talo bat jateko, eta, gero, gainera bihotzerria eukitteko.

Epalea: Kontuz Leire. Ez dau zertan gogoratuarazi hemen euskararen aldeko lanak bihotzerriak ta arropatan lanparoiak uzten dittula!

Akusatua: Arropak esaten dozula. Kilometrotako kolekzino osua dakot. Prakak, sudaderak, kamisetak... Korrikako kuleruak be badakot.

Fiskala: Korrikako kuleruak? Hau epaiketaz kanpo, neure kuriosidade personala. Ta Korrikako kuleruak erosi ta jantzi eitten dittuzu?

Akusatua: Bai!

Fiskala: Hori bai baloria! Ta kulero horrekin jantzita zauzela, momentu baten ligau ezkerero, ta badakitzu, momentu horreitan... Pasau zatzu sekula?

Akusatua: Bai, Barakaldoko euskaldun berri batekin...

Abokatua: Itxoin itxoin! Korrikako kuleruak, hori bai militantzia! Baina harira! Leire, danok dakigu euskaldun izateko estetika jakin bat bete ein biher dala. Ta zuk, seguro nau, betetzen dozula. Ze... Ternuako prakak izango dittuzu armaixuan ezta?

Akusatua: Bai hoixe. Ternuako prakak, Windstoperrak, goretex... Ta Kilometrotako ta Korrikako kolekzino dana!

Fiskala: Gaur ez za hola jantzitta etorri ba!

Akusatua: Kasualitatia!

Abokatua: Ta beste galdera klabe bat zeuretako, Leire. Zuk ikusten dittuzu Goenkale eta Mihiluze?

Akusatua: Bai, zela ez ba!

Abokatua: Eta tartian jarri dauien DBH be bai! Horri batzen badotzagu urtero-urtero Durangora jueten zarela, ta bertan erosketak eitten dittuzula, argi geratu da euskaldun zintzo ta jatorra zarela.

Fiskala: Ba neuretako hori ez da euskaldun zintzo ta jatorra izatia! Euskaldun batendako Durangora juetia musulman bat Mekara fatian iguala da! Hori urtero-urtero ein biherreko peregrinaziñua da. Eta Mihiluze ta Goenkale aittatu dozula... zein atrebitzen da etxeko amamai mandua kentzen Mihiluze ta Goenkale ikusten dabilela? Horrek eztau inungo plusik ematen euskalduntasunian, horregatik ez da bat euskaldun zintzo ta jatorra! Baina bere euskalduntasuna zalantzan jarriko dauen galderak neuk eingo xat, epaile jauna. Adibidez, Leire, sekula egon zara zu bertso final baten?

Akusatua: Bai!

Fiskala: Baina ez Oñatiko bertsolari txapelketako finalian, e? Ni galdeketan nabilena da Barakaldon izaten dan Euskal Herriko bertsolari txapelketako finalian egon zaren. Sekula tragau dozu 10 orduko final horreitako bat?

Akusatua: Bai, han ligau neben Barakaldokuakin.

Fiskala: Zein? Korrikako kuleruena?

Akusatua: Bai.

Fiskala: Beno, ni ez nahastu hamen, galderak eitten nabilela. Sekula egon zara Zuberoko maskarada bat ikusten?

Akusatua: Ez.

Fiskala: Sekula egon zara pastoral bat ikusten?

Akusatua: Ez.

Abokatua: Baina abokatu jauna, kontuan izan biher dogu bera oñatiarra dala, ta nahikua zaila da Oñatitik urtetia, hain urrutira jueteko be!

Fiskala: Beno, ba gertutxuau kokatutako galdera eingo xat. Badakitzu Arrasateko txerri dantzia dantza eitten?

Akusatua: Txerri dantzia? Ez, baña entzun dot oso erraza dala!

Fiskala: Aja, epaile jauna, argi gelditu deilla aktan, ez dala maskaradak eta pastoralak ikustera faten. Eta txerri dantzia ez dauela ikasi,

nahiz eta jakin oso samurra dala. Zela da posible! Ez da, hortaz, hain euskaldun zintzo ta jatorra. Eztaukot besteik esateko.

3. Epaia

- Epailera: Beno, nahikua euki dogu hainbeste epaiketa ta epaiketa ondokin. Euskaldunok beti gabitz alkar epaitzen. Honek zera ein dauelako, bestiak ez dauelako zera ein, A esan dalako, B esan dalako... Ezin geike hola ibili, ez da sanua. Leire euskalduna da, nola ez, nahiz eta ez ikusi pastoralik ezta txarri dantza dantzaik ez ein. Eta, por supuesto, Leirek bere diruakin gure dauena eitten dau. Hori bai, Leire gaur erruduna da. Oso gauza zatarra ein dauelako. Laguntza eskaera baten aurrian beste aldera beitu. Beste aldera beitzia ez dau arazuak ezabatzen, ta euskal prentsan egoeran aurrian, euskaldunok ezin dogu hori ein. Horrenbestez, epaitegi honek emuten duzten ahalmenaz, nik zigortzen zaittut hurrengo zigorrera: hurrengo Korrikan Udanatik hasita Gatzagaraino juetera.
- Akusatua: Asmatika naiz!
- Epailera: Gainera albo banatan Pako Aristi ta Jon Sarasua dazela, soziolinguistikaz eztabaidatzen!
- Abokatua: Beno beno, hori apelatzia gurot, hori larreiko gogorra da! Mesedez!
- Epailera: Apelatzia gurozuela? Bale, barriro pentsaukot. Um... errudun zara! Hori ez da aldatzen, baina prest nau zigorra apur bat arintzeko. Gertu egongo zitzake Oñatiko berria lagun taldian sartzeko, ziztada bila?
- Akusatua: Bai!
- Epailera: Beno, ba hori bada jada nahiko penitentzia. Beno, ba horrenbestez, fiskal jauna, abokatu anderea, akusatu andereñoa, hementxe amaitzen da epaiketa. Eskerrik asko.